

 AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H	<b>IL0052</b>	<b>Hornitzailearen ataria</b>
---	---------------	-------------------------------

## ZER DA? ZERTARAKO DA?

Amorebieta-Etxanoko Udaleko **Hornitzailearen Atariaren** bitartez, faktura elektronikoa Udalera bidaltzeko eta bertan erregistratzeko eman beharreko pausoak eman daitezke.

Halaber, Atari horretatik, erakundeko hornitzaileek hau egin ahal izango dute, bide telematikoa erabiliz:

- Erregistratutako euren faktura guztien egoera kontsultatu
- 347 eta 190 ereduak kontsultatu eta inprimitu
- Banku helbideratze datuak aldatzea eskatu
- Helbide fiskala aldatzea eskatu

## NORK ESKA DEZAKE?

Amorebieta-Etxanoko Udaleko edozein Hornitzailek, pertsona fisikoa edo juridikoa bada ere, **Hornitzailearen Atarian** alta emanda badago.

## AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Atariaren bitartez izapide guztiak egin ahal izango dira.

Faktura elektronikorako onesten diren formatuak XML eta XSIG dira.

Fakturari oniritzia emateko beharrezkoa den dokumentazioa PDF formatuan erantsi ahal izango da (albaranak edo fakturarekin zerikusia duten bestelako agiriak edo izapitzen duen unitateak eskatutako beste batzuk).

## NON ESKATZEN DA?

**Telematikoki:**

- [Hornitzailearen ataria](#)

## ZENBAT KOSTATZEN DA?

Kudeaketaren kostua Udalak hartuko du bere gain

---

## PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Berehala

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: Zehaztu gabe

## ARAUDI APLIKAGARRIA

- [25/2013 Legea, abenduaren 27koa, faktura elektronikoa sustatzekoa eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzekoa.](#)
- [Martxoaren 27ko HAP/492/2014 Agindua, sektore publikoan faktura elektronikoa sustatzeko eta fakturen kontabilitate-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legearen aplikazio eremuko erakundeen fakturen erregistro kontableak izan beharreko baldintza f](#)
- [39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen administrazio prozedura erkideari buruzkoa](#) 14. art.
- [3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena](#) 216.4 art.
- [Aurrekontu Orokorra Betearazteko Araua](#)
- [Ekainaren 24ko HAP/1074/2014 Agindua, Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Orokorrak bete behar dituen baldintza tekniko eta funtzionalak arautzen dituena.](#)

## ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

Kontu-hartze sailean fakturaren kontabilitateko erregistroa onetsi eta dagokion Izapidea egiten duen Unitatera bidaliko da, adostasuna ager dezan. Ondoren dagokion organoak onetsiko du.

## NORK ONARTU BEHAR DU?

Alkatetza

## IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Ekonomia arloa - Kontuhartzailatza

## OHARRAK

Administrazio publikora zuzendutako faktura elektronikoa dagokion hartzailearengana hel dadin, hartzailea faktura elektronikoa identifikatu beharko da. Bereziki, hauek identifikatu beharko dira:

- 
- Kontabilitateko bulegoa
- Organo kudeatzailea
- Izapidea egiten duen unitatea

### Faktura aurkezteko epea:

Fakturan agertzen den hornidura entregatzen denetik edo zerbitzua edo obra amaitzen denetik 30 eguneko epean, edo adostutako epeetan konturako ordainketen kasuan.

### Izapidetzeko epea:

Hogeita hamar egun faktura egiaztatu eta onartzeko eta onartu denetik hogeita hamar egun ordaintzeko.

### Ordainketa egiteko gutxi gorabeherako epea:

30 egun faktura kontabilitatean erregistratu denetik

---

- Fakturan akatsik egonez gero, hornitzaileak aurkeztutako faktura baliogabetu ahal izango du atariaren bidez eta berri bat egin edo aurrekoa zuzentzen duen faktura bat aurkeztu.

- PFEGZn atxikipenik ez duten profesionalen kasuan, hori egiaztatu egin beharko da eta horretarako Ekonomi Jardueren Gaineko Zergan ze epigrafetan alta emanda dagoen adierazi beharko da.